



**Literaktum 2016**  
**Hitzen Hiria –**  
La ciudad de las palabras  
**Maiatza 3 - 14 Mayo**  
**Donostia/San Sebastián**

Gipuzkoako Liburu-denden Elkartek gaur **Zilarrezko Euskadi Sariak** banatu izan ditu. Sari hori bi lani ematen zaie, Gipuzkoako liburu-dendek iazko argitalpen guztien artean aukeratutako bi lani. Oraingo honetan, bi bitxi berreskuratuko dituzte, liburu-dendetan jaso ohi diren berrikuntzen itsaso zabalean murgiltzen diren ugarien artetik. Hain zuzen ere, kaleratu zirenean merezi zuten aitortza jaso ez zuten bi lan dira; hartara, bigarren aukera eman nahi zaie.

Honako hauek dira 2016ko edizio honetan saritutakoak:

- Euskaraz: “*X hil da2*, Alaine Agirrerena, “*idazkeraren edertasunagatik, prosaren eritmoagatik eta narrazioari darion errealismoagatik. Obsesio bati buruzko liburu bat da, modu obsesiboan kontatua. Idazkeraren gaztetasuna harrigarri gertatu da, halaber, literatur tekniken erabileragatik eta liburuak lortzen duen intentsitateagatik*”.

- Gaztelaniaz: “*Instrumental*”, James Rhodes-ena, “*prosa zuzen eta gordin baina aldi berean hurbil eta jostagarriagatik. Argitalpenak erakusten duen ausardiagatik. Darion umoreagatik eta hobetu-nahiaren eta erresilientziaren eredu delako. Eta kultura –kasu honetan, musika– bizimodu batekin lotzeagatik, bizitzan zehar gertatzen diren egoera*”.

*dramatiko eta zailtarako salbabide gisa aurkezteagatik. Liburuak ez baitu inor hotz uzten”.*

Joan den apirilaren 12an iragarri arren, bi sariok maiatzaren gaur eman dira, bi idazle sarituen presentziarekin. Eta biek izango dute agerraldia jaialdian:

- Ostegunean, maiatzaren 5ean, arratsaldeko 7,30etatik aurrera, San Telmo Museoan, James Rhodesez literaturarekin eta musikarekin izan duen esperientzia azalduko du; horrekin batera, zenbait pieza joko ditu pianoan.
- Alaine Agirre, berriz, Jasone Osoro idazlearekin eta Saioa Royo aktorearekin batera agertuko da, maiatzaren 6an, ostiralarekin, arratsaldeko 7,30etan, Koldo Mitxelena Kulturunean.